



AISIALDIRAKO  
2023 **GiDA**

**AZAROA** NOVIEMBRE



**AZAROAK 7 · 14 · 16** NOVIEMBRE  
ABENTURA ASTEA  
*SEMANA DE AVENTURAS*



**AZAROAK 25**  
EMAKUMEENGA  
INDARKERIAREN  
AURKAKO EGUNA

**02 /** osteguna Jueves **18:30**

Herri eskolako aretoan *Sala de la herri eskola*

**EROSOTASUNIK GALDU GABE ENERGIA ETA  
DIRUA AURREZTEKO SAIO PRAKTIKOA**

**SESIÓN PRÁCTICA PARA AHORRAR DINERO  
SIN PERDER COMODIDAD NI ENERGIA**

Energia modu eraginkorrean erabiliz eta erosotasunik galdu gabe energia eta dirua aurrezteko gomendioak ezagutzera emateko tailerra.

*Taller de difusión para dar a conocer consejos con los que ahorrar energía y dinero de la manera más eficaz, sin perder comodidad.*

Izen-ematea urriaren 27a baino lehen egin behar da posta elektronikoa bidaliaz **argitu@gipuzkoa.eus** edo **628530303** telefono zenbakira deituta (astelehenetik ostiralera 9:00-18:00).

*La inscripción debe realizarse antes del 27 de octubre por correo electrónico [argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus) o*

*Llamando al 628530303 (de lunes a viernes) 9: 00-18: 00).*

- Euskaraz *Euskera*
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Irurako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak antolatuta)

*(Organizado por el Ayuntamiento de Irura y el Departamento de Sostenibilidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa)*



**ABENTURA ASTEA SEMANA DE AVENTURAS****07 /** asteartea *martes* **19:00**Herri eskolako aretoan *Sala de la herri eskola***“VUELTA AL PAIS DE ELKANO” LIBURUAREN  
AURKEZPENA ETA SOLASALDIA ANDER  
IZAGIRREKIN****GAZTELANIAZKO SAIAKERAKO 2023KO EUSKADI  
LITERATURA SARIAREN IRABAZLEA****VUELTA AL PAIS DE ELKANO****GANADOR DEL PREMIO LITERARIO EUSKADI 2023  
DE ENSAYO EN CASTELLANO**

Duela bostehun urte, Magallanes eta Elkanoren espedizioak munduari lehen bira eman zion. Orain, Ander Izagirre Getariatik atera eta Getariara itzuli da, Elkanoren jaioterrira, euskaldunen herriari buelta geografiko, historiko eta mentala ematera.

Bizikletaz bidaiatu du, eta bidean, istorio harrigarriak aurkitu ditu: duela bostehun urteko eta gaur egungo pertsona harrigarriak, argiz eta odolez idatzitako historia, kultura nahaspila eta esploratzeko grina. Beti dator ondo guztiari buelta bat ematea. Bereziki herrialdeei.

*Hace quinientos años, la expedición de Magallanes y Elcano dio la primera vuelta al mundo. Ahora,*

*Ander Izagirre ha salido de Getaria y ha vuelto a Getaria, localidad natal de Elcano, para dar una vuelta geográfica, histórica y mental al pueblo de los vascos. Ha viajado en bicicleta y en su camino ha encontrado historias increíbles: personas increíbles de hace quinientos años y de hoy, una historia escrita con luz y sangre, un lío cultural y una pasión por explorar. Siempre viene bien darle una vuelta a todo.*

*Especialmente a los países.*

- Euskaraz Euskera
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Irura Bizi elkarteak antolatuta) (*Organizado por Irura Bizi*)





**08 /** asteazkena *miércoles* **11:00**  
San Migel plazatik abiatuta  
*desde la Plaza San Miguel*

### **IRURAKO ADINEKOAK SASOIKO EGOTEKO EGITASMOA**

#### **PROYECTO PARA MANTENER LA FORMA FISICA DE LAS PERSONAS MAYORES DE IRURA**

65 urtetik gorako pertsonak ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da. Bi modutara har daiteke parte, erabiltzaile bezala edo mugikortasun arazoak dituztenei laguntzeko boluntario aurkeztuz. Nahi duenak 10 minutu lehenago luzatze ariketak egiteko aukera izango du.

*Las personas mayores de 65 años realizan un recorrido para impulsar el ejercicio físico y fomentar las relaciones entre ellos. El recorrido termina con un hamaiketako. Se puede participar de dos maneras, bien como usuario o presentándose como voluntario para acompañar a personas con problemas de movilidad.*

*Las personas que así lo deseen pueden presentarse 10 minutos antes para realizar estiramientos.*

· +65 urte años

*Oharra: laguntzaileak gazteagoak ere izan daitezke*

*Nota: los acompañantes pueden ser más jóvenes.*



**09 /** osteguna *jueves* **18:00**  
 Liburutegian *Biblioteca*

**IRAKURLE TALDEA**  
**GRUPO DE LECTORES**

Taldekoa izan zein ez izan, etorri gurera, liburuak aitzakiatzat hartuta elkarrizketarako bideak zabaltzera!

Hilabete honetako irakurgaia: **Zomorrotu**, Aintzane Usandizagarena.

*Tanto si pertenecéis al grupo como si no, ¡venid a nuestra cita a abrir cauces de diálogo con los libros como excusa!*

*Lectura de este mes: Zomorrotu escrita por Aintzane Usandizaga.*

- Euskaraz *Euskera*
- + 16 urte *años*

(Irakurle taldeak antolatuta)  
 (Organizado por el grupo de lectores)



**11 /** larunbata *sábado* **eguerditik aurrera**  
**a partir del mediodía** Gazte Alaiak elkartean  
*En la sociedad Gazte Alaiak*

**K.K.J. GAZTE ALAIAK ELKARTEAREN EGUNA**  
**DIA DE LA SOCIEDAD GAZTE ALAIAK**

Egun guztiko jaia bazkideentzat.

Egitaraua eta xehetasunak Elkarteko iragarki taulan.

*Fiesta de todo el día para las socias y socios.*

*Programa y detalles en el tablon de anuncios de la Sociedad.*

(K.K.J. GAZTE ALAIAK Elkarteak antulatuta)  
 (Organizado por la Sociedad K.K.J. GAZTE ALAIAK)



**12 /** igandea *domingo* **10:00**

San Migel Plazan *Plaza San Miguel*

**BIGARREN ESKUKO AZOKA**  
**FERIA DE OBJETOS DE SEGUNDA MANO**

Objektu materialei (arropa, jostailuak, altzariak etab.) bigarren bizitza emateko aukera.

Azokan parte hartzeko bi modu daude:

- Norberak bere postua jartzea. Interesa duenak **irurabizi@gmail.com** helbidera idatziz. Norberak bere postuan saltzen dituen gauzen dirua norberarentzat izango da.
- Postua jarri nahi ez duenak aukera du etxean dituen objektuak Irura Biziren postuan uzteko: egunean bertan 10:00etatik 11:00etara bitartean, edo aurrez **irurabizi@gmail.com** helbidera idatzi eta adostutako egun eta orduan. Postu horretan saltzen diren gauzen dirua Iruran ekintza berriak antolatzeko erabiliko du Irura Bizi elkarteak.

*Esta feria posibilita dar una segunda vida a los objetos materiales (ropa, juguetes, muebles, etc.).*

*Hay dos formas de participar en la feria:*

- *Que cada uno ponga su puesto. La persona interesada deberá escribir a **irurabizi@gmail.com**. Para solicitarlo. El dinero obtenido con la venta de las cosas de su puesto será para cada persona que ponga el puesto.*
- *Quien no quiera poner puesto, tiene la oportunidad de depositar sus objetos en el puesto de Irura Bizi: el mismo día de 10:00 a 11:00 horas, o con antelación. La asociación Irura Bizi destinará el dinero obtenido con la venta de esos artículos a organizar nuevas actividades en Irura.*
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Irura Bizi elkarteak antolatuta) (Organizado por Irura Bizi)

**14 /** asteartea *martes* 19:00

Herri eskolako aretoan *Sala de la herri eskola*

**MUNDUMINEZ AGURTZANE BELAUNTZARAN**  
**MUNDUMINEZ AGURTZANE BELAUNTZARAN**

Agurtzane Belaunzaran berrobitarrak urteak pasa ditu bidaien joan-etorrian, Euskal Herria eta muduaren arteko mugetan; plazerez hasieran, eta lanbidez gero.

“Urrunean eta gertuan bizitutako esperientziak eta ezagututako gizon-emakumeek, mundua ulertzeko aldatuz joan diren begi berriak eman dizkirate. Besteak eta besteena ezagutzeko grinak eraman nau hara eta hona ibiltzera. Ibilbide horretan, ikasitakoek mundua hankaz gora jarri didate eta galderaz bete burua.”

*La berrobitarra Agurtzane Belaunzaran ha pasado años en el tránsito de viajes, en los límites entre Euskal Herria y el mundo; por placer al principio, y profesionalmente después.*

*La experiencia vivida lejos y cerca y los hombres y mujeres que he conocido me han dado nuevos ojos que han ido cambiando la manera de entender el mundo.*

*La pasión por conocer a los demás y lo de los demás me ha llevado a ir y a venir. En ese recorrido, lo aprendido me ha puesto el mundo patas arriba y me ha llenado la cabeza de preguntas.*

- Euskaraz *Euskera*
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Irura Bizi elkarteak antolatuta) (*Organizado por Irura Bizi*)



**16 /** osteguna *jueves* 19:00

Herri eskolako aretoan *Sala de la herri eskola*

**250 EGUNEZ, BIZIKLETA BIZIMODU. ALEGIATIK BOLI KOSTARA ANDER ARANDIA ETA GARBIO ARROYUELO**

**250 DÍAS LA BICI EL MODO DE VIDA . DE ALEGIA A COSTA DE MARFIL ANDER ARANDIA Y GARBIO ARROYUELO**

Zortzi hilabetetan Alegiatik abiatu eta Boli Kostara bidaiatu dute, tadem baten gainean. Bidaia eta bertan bizitakoak kontatuko dizkigute.

*Ocho meses partiendo desde Alegia han viajado hasta Costa de Marfil montados en un tadem. Nos contarán el Viaje y sus vivencias.*

- Euskaraz *Euskera*
- Publiko guztia *Todo los públicos*

(Irura Bizi elkarteak antolatuta) (*Organizado por Irura Bizi*)

## AZAROAK 20, HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

20 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS DE LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA



**20 /** astelehena *lunes* **16:30**

San Migel Plazan *Plaza San Miguel*

### **KALAKA ZUREZKO JOKOAK KALAKA JUGUETES DE MADERA**

Arratsaldean zehar haur eta nerabeek trebetasuna, imaginazioa, zehaztasuna kontzentrazioa, oreka eta koordinazioa bezalako alderdiak garatu ahal izango dituzte hainbat joko ezberdinen bidez.

### **NOLA BABESTU GURE SEME-ALABAK?**

### **ABUSUEN PREBENTZIOA ETA LAGUNTZARAKO TRESNAK.**

Gurasoentzako tailerra antolatuko da.

Egitaraua aurrerago zehaztuko da.

*A lo largo de la tarde las niñas, niños y adolescentes podrán desarrollar aspectos como la imaginación, la precisión, la concentración, el equilibrio y la la coordinación a través de diferentes juegos.*

### **COMO PROTEGER NUESTRAS HIJAS E HIJOS?**

### **HERRAMIENTAS PARA LA PREVENCIÓN Y LA ASISTENCIA ANTEE LOS ABUSOS.**

*Se organizará un taller para padres y madres.*





**21 /** asteartea *martes* **18:30**

San Migel Plazan *Plaza San Miguel*

**LOATZO MUSIKA ESKOLAKOEN SANTA ZEZILIAKO  
MUSIKA EMANALDIA**

**ACTUACIÓN MUSICAL DE LA ESCUELA DE MUSICA  
LOATZO CON MOTIVO DE SANTA CECILIA**

Loatzo musika eskolak, azaroaren 22ko Santa Zezilia eguna aitzaki hartuta, azaroaren 19tik 24ra musika astea antolatu du mankomunitatea osatzen duten herri guztietan. Irurako emanaldia programa horren barruan kokatzen da.

*La escuela de música Loatzo, con motivo de la festividad de Santa Cecilia del 22 de noviembre, ha organizado una semana musical del 19 al 24 de noviembre en todos los pueblos que conforman la mancomunidad. La actuación de Irura se enmarca dentro de ese programa.*

(Loatzo musika eskolak antolatuta)

(Organizado por la escuela de música Loatzo)



**23 /** osteguna *jueves* **19:00**

Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri Eskola*

**ETA GIZONAK ZER? MASKULINITATEEN  
LANKETATIK, INDARKERIA MATXISTEI AURRE EGIN  
¿Y EL HOMBRE QUÉ? HACER FRENTE A LAS  
VIOLENCIAS MACHISTAS DESDE LA ELABORACIÓN  
DE LAS MASCULINIDADES**

Mikel Otxotorena, Generoa eta Maskulinitateetan  
Aholkulariarekin.

Jendarte berdinzale eta parekide bat eraikitzea emakume eta gizonen ardua da. Emakumeak denbora daramate feminismoari eta mugimendu LGTBI+ esker, lanketa hauetan. Gizonak oso pixkanaka gehitzen ari gara. Eta gehitze horretan ezinbestekoa izango da gizonen aldetik konpromisoak hartzea. Maskulinitateen lanketa eta azterketa, ikuspegi feminista batetik, jendarte berdinzale eta parekide baten eraikuntzan ezinbestekoa izango da.

*Mikel Otxotorena, asesor en Géneros y Masculinidades.*

*La construcción de una sociedad igualitaria y paritaria es responsabilidad de mujeres y hombres. Las mujeres llevan tiempo tratando temas como el feminismo con el movimiento LGTBI+. Los hombres nos vamos sumando muy poquito a poco. Y en esa incorporación será imprescindible la asunción de compromisos por parte de los hombres. El estudio y análisis de las masculinidades, desde una perspectiva feminista, será imprescindible en la construcción de una sociedad igualitaria y paritaria.*

- Euskaraz Euskera
- Gazte eta helduak Jóvenes y adultos

(Irura Moretuz elkarteak antolatuta)

(Organizado por Irura Moretuz)

**24 /** ostirala *viernes* **19:00**

Kulturunean *Kulturunea*

**“TERAPIA” ISTORIAKO EMAKUMEEN  
KONTAKIZUNAK**

**RELATOS FEMENINOS DE HISTORIA DE TERAPIA**

Betidanik esan izan da gizon handi baten atzean emakume handi bat dagoela... Pia doktorearen terapiari esker baieztatu dezakegu emakume handi baten atzean beti traba egiten dion gizona dagoela.

Lisa Gerardini, Maridomingi edo Ama Birjinia dira Pia doktoreak bere kontsultan tratatu izan dituen emakume handietako batzuk.

Bere istorioen bidez, azkenik, gertaeren beste bertsioa ezagutzeko aukera izango dugu, talde-terapia bat eginez, beti ere GUNE SEGURU BATEAN gaudela jakinda.

*Desde siempre se ha dicho que detrás de un gran hombre hay una gran mujer... Gracias a la terapia de la doctora Pia podemos confirmar que detrás de una gran mujer hay un hombre que siempre le estorba.*

*Lisa Gerardini, Maridomingi o la Virgen son algunas de las grandes mujeres que la doctora Pia ha tratado en su consulta.*

*A través de sus historias, finalmente, hemos tenido la ocasión de conocer la otra versión de los hechos mediante la realización de una terapia de grupo, sabiendo que siempre estamos en un ESPACIO SEGURO.*

- Euskaraz *Euskera*
- +13 urte *años*



**25 /** larunbata *sábado* **16:30** Gaztelekuan  
Gazteleku


**“EZ ZAUDE BAKARRIK” HITZALDIA**  
**DISCURSO NO ESTAS SOLA**

11 eta 16 urte bitarteko nerabeek beraien etxeetan jaso duten “EZ ZAUDE BAKARRIK” aldizkariko protagonistetako baten hitzaldia.

*Charla de una de las protagonistas de la revista “NO ESTÁS SOLA” que todos los adolescentes de 11 a 16 años han recibido en sus domicilios.*

- Gaztelera Castellano
  - 11-16 urte bitartekoentzat
- Para personas de 11 a 16 años*

(Irurako gaztelekuak antolatuta)  
(Organizado por el gazteleku de Irura)



**Azaroak 25**

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN  
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

**25 de noviembre**

**DÍA EN CONTRA DE LA VIOLENCIA  
HACIA LAS MUJERES**



euskara



**Irurako  
udala**



kultur  
mahaia



castellano